


herrera-bidebieta

Frontoiaren ordu banaketa

herrera frontoiaren erabilpena eta ordutegi banaketa, urtero gertatzen den bezala, abuztuan bukatu egingo da aurten ere. Hala ere, Herri-Pe auzo elkarteak aurretik antolatuta utzi nahi du datorren ikasturtean frontoiak izango duen egutegi berria. Horretarako, uztailearen 20ean (osteguna) Auzotegin, arratseko 20.00etatik aurrera ordu eta egun zozketa egingo dira.

Gainerako urtetan bezalaxe, Auzo Elkartek eta baita auzoko kirol taldeek ere, iraunkortasuna izango duten ekintzei emango diete lehentasuna, baita ikastetxe, klub eta gizarte taldeei ere. Haue-tariko gehientsueni hilaren 20a baino lehen emango zaizkie orduak. Beraz, zozketa partikularrentzat izango da.

Parte hartzaileen jatorria ere hartzen da kontutan baina hortik aurrera papeleta guztiak zaku berean sartuko dira zozketa egiteko.



Maria Pilar Sobrido judokaren saria

Herreran kirol ekintzek duten garrantzia kontutan izanik, udako hilabete hauetan antolaketa eta balantze lanak egiten dituzte elkarre bakoitzeko arduradunek.

Ikastetxe Publikoko judo arduraduna den Vicente Garciak guttiz positiboki baloratu du aurtengo ikasturtea, berak lortu baitu, 14 urteko Maria Pilar Sobrido gazteak, pasa den ekainaren 17an Pozuelo de Alarcón herrian ospatutako Espainiako Judo txapelketan hirugarren postua eskuratzea. Maria Pilar Sobridok txapelketa ugari eskuratu ditu jada eta horregatik ezinbestekotzat jo du berarekin entrenamenduetan ibili den Gorka Arronizen lana.

Gazte-txokoaren irteerak

bidebietako gazte-txokoak, «Gazte Uda 95» egitarauaren barruan, uztailean asteroko irteera irekiak antolatu ditu. Horrez gain, datorren astean, hau da, uztailearen 17tik-23ra Nafarroa bisitatuko duen kanpaldia egingo da. Kanpaldia Zuñigan jarriko da eta 7 egunetarako gazte-

txokoak jokuak, orientazioa, gau-jaiak, superbibentzia... prestatu ditu. Kanpaldiaren prezioa 5.000 pezeta izango da.

Uztaileko egitarauarekin aurrera eginez, uztailearen 26rako, asteazkena, pala txapelketa iragarria dago eta hilaren 27 eta 28an trainerua deituriko ekintza eta hilabetean

zehar eginiko ekintzen diapositiba proiektzioa eskainiko zaizkigu besteak beste.

Abuzturako egitaraua ere prest dago eta ekintzak hileko lehenetik 12ra izango dira Aste Nagusiko jaien egitaraua errespetatuz.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

OKINDEGIA ETA GOZOTEGI ETXEOAK



MARCOS

Ubarburu P., 4-5 Pabiloiak • 27 Industrialdea - Telf : 45 09 66 - MARTUTENE
Urdaburu Kalea, 2.- B Ijurko - Telf : 52 95 98 - LEZO
Ategorrieta Etorb., 33 - Telf : 27 48 48 - DONOSTIA



ana

- Elekrika Blend Sistema
- Makilata Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Betilen Tindaketa...

Zedro plaza 2 • DONOSTIA • Tfnoa.: 392051
Nagusia 27 • LASARTE • Tfnoa.: 371891